# KLIMA ALDAKETARI BURUZKO IKERKETAK EAEN I

*Posted on 16/04/2010 by Naider*



Aspaldiko partez, Ideien baratzako bloga, euskarazko fruitu bat izango da dugu. Jakin badakigu klima aldaketa arazo larria izanen dela, agian ez epe motzean, baina epe luzean, zientzilari gehien ustetan.

Leku askotan azaltzen diren nazioarteko ekimenak, COP eta IPCC-aren txostenak alde batera utzita, Euskal Autonomi Elkarteak egiten ari diren ekimenen berri ematen dizute. Martxoan Euskalduna Jauregian antolatutako"KlimaGunea"-aren kronika txiki batekin hasiko gara. Klima Gunea, BC3antolatutako jardunaldi bat izan zen, ez Unibertsitateko ikerlariak euren lanen berri eman ziguten.

Anyl Markandyak BC3-ak dituzten ikerketak ezagutarazi zituen, gehienbat klima aldaketaren egokitzapenari zuzenduta daudenak. Hala ere badituzte Nazioarteko politika eta klima aldaketaren modelizazioan lan egiten duten ikerlariak ere.

EHU-ren aldetik **Alex Cearreta , Marta Escapa**, **Jon Sáenz** eta **Javier Loidi** ikerlariek lanen berri eman zuten.

**Alex Cearreta**, eta estratigrafia paleontologietik, klima aldaketak eragin eraginenetako bat ikertzen diahardu: itsas mailaren igoera. Oraingoz, Urdaibai inguruan egin ditu ikerketak eta iraganean izan ziren aldakaten berri eman zigun.

**Marta Escapa**-k eta klima aldaketaren sektorean burutzen ditu bere lanak, eta honen kostuak eta eraginekonomikoak lantzen ditu, EAEn eta bere ekonomiak izan ditzakeen ondorioak ikertuz.

**Jon Sáenz**-ek berriz EOLO taldean egiten du lan, klima aldaketaren eredu fisiko-matematikoak ikertuz. Argi utzi zigun, klimaren egoera aurreikusteko oraindik ez dago eredu fidagarririk, gertaera eta faktore kopurua dela eta; ez lehen lehenengo 15 km-etan!

Aurkezpenak bukatzeko, **Javier Loidik**, K-Egokitzen proiektu estrategiko barruan, landare biologia alorrean egiten ari diren ikerketak azaldu zizkigun. Batetik Dendrokronologia iraganeko klima aztertzen dira, eta bestetik mendi larreetako espezieen egokitasun ahalmena frogatzen dihardute.

Bukatzeko Nieves Terán, EAE-ko Ingurumeneko sailburordeak, or "Klima Aldaketaren Lege" beat inguruan lanean dihardutela azaldu zuen, urte amaierarako perst egotea espero dut duelarik.

Gai interes daude martxan Klima Aldaketaren inguruan EAE-n, ikelari eta gobernuko ordezkariek baina argi utzi zuten haien artean ez dago askorik. Agian BC3-ak lan hori egin dezake, baina gaur egun nabaria da Unibertsitate-Gobernu eta Teknologia arteko koordinazioan dagoen hutsunea, (ez zen k Aurkitzen ez den plangintzak bere helburu estrategikoei buruz aipamenik egin, adibidity).

Klima aldaketa arazo korapilatsua da, eta denon artean bilatu behar zaio irtenbidea, beraz, behar-beharrezkoa da eragile guztien artean koordinazio eta informazio fluxu egoki bat egotea, bai eta gizartearekin ere. Bakoitzak bere aldetik jotzen badu, jai dugu.

**There are no comments yet.**